



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailak 6**

**Vitoria-Gasteiz, 6 de julio de 2010**

## **LEHENDAKARITZA**

---

Dekretua, Nevadako estatuari "Lagun Onari" goraipamena ematekoa.

Dekretua, Patty Miller andreari "Lan Onari" goraipamena ematekoa.

## **HERRIZAINGO SAILA**

---

Dekretua, Euskadiko Jokoen Katalagoa bigarren aldiz aldatzekoa.

## **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

---

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzekoa.

Erabakina, 5.000.000 eurotik gorako gastuaren kontratu bat, baimentzen duena, 2010/11 ikasturterako kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten Sailaren menpeko ikastetxe publikoei prestatutako bazkariak, lehengaiak eta beste zerbitzu baliokide batzuk hornitzeko espedientea kontratatzeko.

Erabakia, baimena emateko hitzarmen bat sinatzeko Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Goi-maila Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitzeko baliabideak jartzeko.

Agindua, ikastetxe publikoetan ikasketak egiten ari diren eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

Agindua. Honen bidez lankidetzeta-beketarako deia egiten da 2010-2011 ikasturterako.

Agindua, Unibertsitatea-Enpresa egintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten duena (2011-2012).

Agindua, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetarako hezkuntza-itun berriak izenpetzeko baldintzak arautzen dituena, eta ituntze-araubidea lehenengo aldiz baliatu nahi duten ikastetxeei 2010-2011 ikasturtea ituntzeko dei egiten diena.

## **ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**

---

Erabakia, horren bidez, Arangoitiko igogailuen instalazioak birgaitzeko eta leheneratzeko lanak finantzatzeko Fincas y Transportes, SL. enpresari emandako diru-laguntzaren baldintzak ez direla bete adierazten da.

## **ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

---

Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena.

## **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

---

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena ematekoa. Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-sektorerako 2010eko diru-laguntzetarako deialdia finantzatzea.

## **KULTURA SAILA**

---

Agindua, 'Kale antzerkia bultzatuz' programari zuzendutako diru-laguntzen deialdia arautzen duena.

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK LAGUN ONARI GORAIPAMENA NEVADAKO ESTATUARI EMAN DIO ETA LAN ONARI GORAIPAMENA BOISEKO EUSKAL MUSEOKO ZUZENDARIARI.**

- **Goraipamenak lehendakariak emango ditu AEBtara egingo duen bidaian.**

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur erabaki du ematen dituen goraipamenik handienetako bi Nevadako Ameriketako Estatuari eta Patty Miler Boiseko Euskal Museoko zuzendariari ematea. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak Nevadako Estatuari Lagun Onari ematen dio euskal herritarrek hartu dituelako eta adiskidantza, kultura eta, batez ere, ekonomia harremanak bultzatuz kanpoan Euskadiren zabalkundea lortu duelako.

Halaber, Jaurlaritzak Lan Onari goraipamenarekin Patty Millerren lana eskertu nahi du. Boiseko (Idahoko hiriburua) Euskal Museoaren zuzendaria da 1993tik aurrera eta goraipamen horrekin izan duen giza eta lanbide ibilbidea aitortu nahi dio, “kultura eremuan sekulako ardura, etengabeko ahalegina eta ekimen aipagarria” erakutsi dituelako.

Lehendakariak banatuko ditu bi goraipamenak hilabete honen bukaeran Nevada, Idaho eta Kaliforniako estatuetera egingo duen bidaian.

Nevada izan zen XIX. mendean euskal artzain askoren sarrera; nahiz eta, hauetako asko azkenean Kalifornian ezarri ziren urrearen garai hartan, eta gainera Nevada izan da kultura ekimen garrantzitsu asko garatu dituen estatua. Ez da ahaztu behar, 1959an, Sparks herrian izan zela Lehenengo Euskal Jaialdi Nazionala, horrek Ameriketako mendebaldeko urteroko jaialdiak antolatzeke balio izan du, eta Ameriketako Estatu Batuetako Euskal etxeen Federazioaren (NABO) haziera izan da.

Era berean, Renoko hirian 1967an Euskal Ikasketen Zentroa sortu zen, Nevadako Unibertsitateari atxikia, eta urteetan zehar euskal ikasketen nazioarteko erreferentzia bihurtu da mundu angloaxoian; gainera, ikasleen trukaketen sistemaren bultzatzailea bihurtu da eta, horri esker, Ameriketako eta beste nazioetako unibertsitateetako milaka ikasle euskal kampus desberdinetan ikasi ahal izan dute.

Patty Millarrek duela 17 urtetik hona Ameriketako Estatu Batuetako euskal museo bakarra zuzentzen du, Boisen dago museo hori eta bertan munduko euskal komunitaterik garrantzitsuena kokatzen da.

Museoak antolatzen dituen ekintzen artean euskal munduari buruzko zabalkunde programak daude eta Idahoko eskoletan eta Oregoneko ekialdean ematen dira programa horiek eta argazki erakusketa asko ere antolatzen dira. Horietako azkena “Ocultos a plena vista: los vascos” titulua duena da eta

300.000 pertsonatik gora ikusi ahal izan dute Elliseko Irlan, Manhattanen. Erakusketa hori egokituko da euskal kolonia nabarmenak dauden Ameriketako hiri eta herrietan ikusi ahal izateko.

## Herrizaingo Saila

### EUSKADIKO JOKOEN KATALOGOA EGUNERATZEA ONARTU DUTE

- **Joko mota gehiago jasotzeko eta arau funtzionalagoak eta eraginkorragoak izateko**

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Jokoen Katalogoaren bigarren aldaketarako Proiektua onartu du gaur. Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak proposatuta onartu da Katalogoaren gaurkotzea, azken urteotan agertutako joko mota berriak jasotzeko eta, halaber, gaur egungo jokoaren errealitateari egokitzen diren arau eraginkorragoak eta funtzionalagoak izateko.

Euskadiko Jokoen Katalogoak jokoen arau orokorrak jasotzen ditu. Horrez gain, arautegi sektorialak ere barne hartzen ditu; hortaz, joko zehatz bat (makinak, bingoak eta abar) arautzeko Katalogoan jasota egon behar da. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzen duen 1991ko Legearen oinarritzko elementu bat da Katalogoa.

Halere, egungo Katalogoa 1996koa da eta, orain dela bost urte partzialki berritu bazuten ere, hamalau urtetik gora igaro dira dagoeneko eta erdi zaharkituta geratu da, jokoaren sektoreak etengabeko aldaketak eta berrikuntza teknologikoak bultzatu baititu, betidanik dinamismorako izan duen joerari helduta.

Katalogoaren eguneratzeak hiru alderdi nagusi ditu oinarri:

Lehenbizi, joko berriak jasoko ditu, *Trijoker* eta *Zirkuluko Pokerra* izenekoak besteak beste. Azken hori bost karta estalita eta karta-uzteko aukerarekin jokatzen da, eta *Seven Stud*, *Omaha*, *Hold'em* eta *Five Stud* izeneko aldaerak ditu. *Texas Hold'em* Zirkuluko Poker jokoa Katalogoan jasotzea bereziki azpimarragarria da, izan ere, kasinoaren parte-hartzerik gabe zenbait jokalariren artean jokatzen den poker mota hau oso arrakastatsua da, telebistaz ere ematen dutelarik. Erreformarekin Euskadiko kasinoetan poker mota hau jokatu ahal izango dute, joko zein txapelketa modalitateetan.

Bestalde, erreformak beste alde bati ere helduko dio; gaur egungo kasino-jokoetako batzuen funtzionaltasuna indartuko du, gizartearen dinamika berriari egokituz eta jokatze modua edo horiek sustatzeko beharrezko langileen prestakuntza hobetuz.

Erreformak Poker txapelketen arauetan ere eragingo du. Kasinoetako ohiko jokoetan ez bezala, topaketa horietan ez da diru-kopuru handirik jokatzen, helburu bakarra lehiatze hutsa baita. Modan dagoen jarduera izanik, eta lege-hutsune bat dagoela kontuan hartuta, gardentasuna eta erabiltzaileen babes bermatu beharrek erregulazioa erabat beharrezkoa zen.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### UNIBERTSITATEAZ KANPOKO FUNTZIONARIO IRAKASLEEN HITZARMENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen dekretua.

Izenpetzen den unetik indarrean sartuko den hitzarmenak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorio ekonomikoak izango ditu eta 2012ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Gaur onartu den dekretuak euskal irakaskuntza publikoko 22.000 irakasle funtzionario eta interinoren lan-baldintzak arautu aparte, kalitate handiagoko hezkuntza-eskaintza zabalago bat bultzatzen du eta, batez ere, egonkortasuna areagotzearen aldeko apustu argia egiten du.

Hurrengo hiru urteetarako hitzartu diren enplegu-eskaintzak, 3.600 lanpostu baino gehiagorekin Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta LHn, ikastetxeen plantila organikoa 2500ekin areagotzea, honek emango die irakasle gehiagori behin-betiko destinoa izateko aukera, eta bitarteko irakasleak finkatzeko sistema bat adostu diren neurri zehatzak dira eta egonkortasuna sustatzen dute.

Irakasleen lan-eskubide guztiak jasota geratzen dira CCOO-irakaskuntza eta FETE-EUGTrekin sinatutako akordio honetan; areago, lehenago epaileek erabakiaren zain zeuden eskubideak ere eransten dira. Gainera, irakasle guztiak, haien kotizazio-erregimena (MUFACE edo Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorra) zein den alde batera utzita, erretiro aurreratua lortzeko aukera berberak edukiko dituzte, indarreko legeriaren barruan.

Dekretuaren bidez ikastetxeen baliabideak berrantolatu izaten dira eta ordezkaten sistema bat finkatzen da: lehen egunetik ordezkatu nahi ditugu hezkuntza-premia berezietako gela itxietan gertatzen diren bajak; baja jakinarazi eta hurrengo egunean Haur Hezkuntzako eta norbere arazoetarako baimenek eragindako bajak; hirugarren egunetik aurrera Lehen Hezkuntzako Ingeles eta Euskarako bajak; laugarren egunetik aurrera Lehen Hezkuntzako gainontzeko ordezkapenak eta bosgarren egunetik aurrera gainontzeko maila guztietan.

Azkenik, irakasleen soldatak (osagarri espezifikoak eta hamabost urtetan etenda egon ondoren berreskuratzen den ordainsarien sistema izan ezik) gobernuko arlo publikoaren berberak dira eta aldaketa berberen menpe daude.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### **95,435 MILIOI EURO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKIETARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran bazkari prestatueta, lehengaietarako eta hornidura horren moduko zerbitzueta 95,435 milioi euroko gastu-baimena onartu du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxe publikoetarako.

2010/2011 ikasturtean euren jantokiak zuzenean kudeatuko dituzten ikastetxe publikoak 473 izango dira.



## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### GOI HEZKUNTZAKO ESPAZIO EUROPARRA

Gobernu Kontseiluak erabaki hauek hartu ditu: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematea, unibertsitatea Hezkuntzako Espazio Europarrera errazago egokitzeko, eta Euskal Herriko Unibertsitateari 410.088 euroko dirulaguntza bat ematea, hitzarmen hau kofinantzatzeko. Dirulaguntza hori Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik dator.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### **2.297.838 EUROTAKO DIRU-LAGUNTZA HEZIKETA-BEHARRIZAN BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLA-GARRAIORAKO**

Gobernu Bilerak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak proposatuta, Agindu bat onartu du. Honen bitartez eskola-garraiorako banakako diru-esleipenak ematea onartzen da ikastetxe publikoetako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleentzat.

Diru-esleipen hauek 2.297.838 eurotako zenbatekoa izango dute eta jasotzaileak honakoak dira: mugapen larriak direla eta, antolatutako eskola-garraioak edota ohiko garraio publikoak erabili ezin ditzaketen haurrak eta, hortaz, euren etxebizitzetatik eskoletara joatea erraztuko duen garraio-alternatiba bat behar dutenak.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### 175 LAGUNTZA BEKAREN DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, gaurko egunean agindu bat onartu du. Agindu horren bidez, laguntza bekak izeneko izaera bereziko ikasketetarako beken deialdia egiten da, 2010/2011 ikasturterako.

Dirulaguntzen zenbatekoa guztira 673.422 eurokoa da, eta horren bidez 175 laguntza beka emango zaizkie, hain zuzen, titulu ofizialak lortzeko ikasketetako bigarren zikloko azken urtea egiten ari diren eta unibertsitateko ikastegietan lagundu nahi duten Euskadiko auzotartasuna duten ikasleei.

Laguntza hauen onuradunek, ikasketak egiteaz gain, egunero hiru orduz lagunduko dute Unibertsitatean dagokien departamentuan. Ikasten ari diren alorrarekin zerikusia duten irakaskuntza edo ikerketa lanetan arituko dira.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### IKERKETA ETA BERRIZTAPEN TEKNOLOGIKOA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindu bat onartu du gaurko bileran. Agindu horren bidez deitzen dira ikerketa eta berriztapen teknologikorako dirulaguntzak, 2011-2012 ikasturtean unibertsitatearen eta enpresen arteko jardueretarako aurreikusitako fondoek kontura.

Deialdi honek 229.472 euroko aurrekontu globala du 2011-2012ko ekitaldirako eta ekoizpen-enpresentzat erabilgarri izango diren Ikerketa Aplikatu eta Teknologikoko proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak deitzea du helburu. Unibertsitate-ikertzaileek, Zientzia, Teknologia eta Ikerketaren Euskal Sareko eragile batzuek eta enpresa eta erakundeetako Ikerketa eta Garapeneko unitateek hartuko dute proiektu horietan parte, aplikazio sozial, industrial edo teknologikoko gaiak garatzeko gizarte- edota industria-jarduerak eginez.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### HEZKUNTZA ITUNAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, onartu du 2010/2011 eta 2011/2012 ikasturteetan hezkuntza-itun berriak izenpetzeko baldintzak arautzen dituen eta itunen erregimenean lehen aldiz sartu nahi duten ikastetxeak 2010/2011 ikasturterako itunak izenpetzera deitzen dituen agindua.

Itunen erregimenera sartu nahi duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuak 2010/2011 eta 2011/2012 ikasturteetarako beste hezkuntza-itun bat izenpetzera deitzea du agindu honek helburu, Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Batxilergoetako eta erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako irakaskuntzetarako.

## Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

### **JAURLARITZAK GALDUTZAT JO DU ARANGOITIKO IGOGAILUEN EMAKIDA DUEN ENPRESAK DIRU-LAGUNTZAREN ZATI BAT ESKURATZEKO ESKUBIDEA**

Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki du Arangoitiko igogailuetako instalazioak birgaitu eta eraberritzeko obrak finantzatzeko Fincas y Transportes SL enpresari emandako diru-laguntzaren baldintzak arautzen zituen 2007ko azaroaren 6ko hitzarmena betegabetzat jotzea.

Horregatik, Jaurlaritzak galdutzat jo du enpresari zegokion diru-laguntzaren zati bat jasotzeko eskubidea, 123,5 mila euroko (123.518,53 €) zatia, hain zuzen.

2010eko otsailaren 2an Jaurlaritzak erabaki zuen hitzarmena ez betetzeagatiko espedientea abiaraztea, eta gaurko Kontseiluak, enpresaren alegazioen argitan, erabaki du zegokion diru-laguntzatik 123.518,53 € jasotzeko eskubidea galdutzat jotzea.

Akordio horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean.

Igogailuak nahiko egoera kaskarrean zeudenez, eta zerbitzua behar bezala eskaintzea galarazten zuenez, 2007ko uztailaren 17an, Jaurlaritzaren Kontseiluak Fincas y Transportes, SL enpresari 601.320 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuen, igogailuetako instalazioak birgaitu eta eraberritzeko obrak finantzatzeko, eta hitzarmena 2007ko azaroaren 6an sinatu zen.

Diru-laguntza jaso duen enpresak kontratatuta lan egin duen obra-zuzendaritzak ziurtatu duenez, guztira 648.678,55 euroren obrak egin dira. Baina, Administrazioak, behar diren egiaztapenak egin ondoren, 477.801,77 euroren obra-ziurtagiriak ordaindu ditu.

Obra-zuzendaritzak ziurtatutako guztirako kopuruaren eta egiaztatutakoaren arteko aldea, Garraio Zuzendaritzak obrak egiten ziren bitartean egindako egiaztapen eta txostenetatik ondorioztatu da. Egiaztapen eta txosten horiek desadostasunak eragin zituen: alde batetik, obra-unitateen neurketa desberdinengatik; eta bestetik, ziurtatu arren, egiteke edo proiektuko zehaztapenak errespetatu gabe egin zirela egiaztatu ziren hainbat kontzepturengatik eta onartutako obra-proiektuan jaso gabe egon arren, egin eta ziurtatu ziren beste batzuegatik.

## Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

### GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, Langabeak bazkide langile edo lan-bazkide mugagabe gisa kooperatiba-sozietateko edo lan-sozietateko forma juridikoa duten enpresetara sartzeko laguntzak onartu ditu Jaurlaritzaren Kontseiluak. Horrez gain, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiategi zein ustiategi mistoetako titularrak nekazaritza-kooperatibetara bazkide gisa sartzeko laguntzak onartu ditu gobernuak.

Bi laguntza-lerroetarako guztizko zenbatekoa 805.000 eurokoa da.

Oro har, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ondokoak emango dizkie onuradunei:

a) Hiru mila euro gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, betiere urtebete baino gehiago igaro ez bada enpresa eratu denetik eta gizarte-ekonomiako enpresa horrek 11 bazkide langile edo lan-bazkide baino gutxiago baditu.

b) Bi mila eta bostehun euro gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, betiere urtebete baino gehiago igaro ez bada enpresa eratu denetik eta gizarte-ekonomiako enpresa horrek gutxienez 11 bazkide langile edo lan-bazkide eta, gehienez, 49 baditu.

c) Bi mila euro Aginduko 2. artikuluan ezarritako ezaugarriak biltzen dituzten gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko.

Nekazaritza-kooperatibetan sartzeko diru-laguntza 2.000 eurokoa izango da.

### Laguntza teknikoa

Gizarte-ekonomiaren arloan jarraituz, era horretako enpresentzako laguntza teknikorako laguntzak onartu ditu Jaurlaritzak. Zehazki, honako hauetarako laguntzak egongo dira:

a) Urteko kudeaketa-planaren eta plan estrategikoaren ezarpena.

b) 50 langile baino gutxiago duten gizarte-ekonomiako enpresen administratzaileentzako kanpoko kudeaketa-aholkularitza, gutxienez urte batean, aurretik dagokion urteko kudeaketa- edo estrategia-plana ezarrita.

c) Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzen programan parte hartzen duten 10 langiletik beherako kooperatiben eta lan-sozietateen merkataritza-kudeaketarako berariazko aholkularitza.

d) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek alde aurreko derrigorrezko azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, haien erakunde bazkideetuei bermeak emateko.

e) 50 lanpostutik beherako gizarte-ekonomiako enpresetan lanpostuen balorazioa egitea.

f) 15 lanpostu baino gutxiagoko gizarte-ekonomiako enpresetan, goranzko edo beheranzko informazio- edo komunikazio-sistemen diseinua eta ezarpena, erakundeko pertsonen arteko komunikaziorako bideak eratzeke.

g) 15 lanpostutik beherako gizarte-ekonomiako enpresetan Ekonomia eta Finantza Kudeaketako Eredua ezartzea.

h) 15 lanpostutik beherako gizarte-ekonomiako enpresetan Aginte Taula Integrala ezartzea (Scoreboard balantzea).

Baldintzak betetzen dituzten eskabideei ondorengo zenbatekoak egokituko zaizkie:

- Onartutako ekintzako kostu garbia, 9.000 euroko gehienezkoa mugarekin.
- 50 langile baino gutxiago duten enpresetan aurreikusitako ekintzen kostuaren % 75.
- 50-150 langileko enpresetan aurreikusitako ekintzen kostuaren ehuneko % 50.
- 150 langile baino gehiago duten enpresetan aurreikusitako ekintzen kostuaren % 25.



## Ingurumen, Lurralde Plagintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

### **16.287.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZEN DEIA EUSKAL ARRANTZA-SEKTOREARENTZAT**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran 2010eko ekitaldirako 16.287.000 euroko diru-laguntzen deia onartu du euskal arrantza-sektorearentzat. Kopuru hori Europako Erkidegoko funtsetatik eta EAeko aurrekontu orokorretatik ordainduko da.

Beraz, Gobernu Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu hori ontzat eman du. Agindu horren bidez, euskal arrantza-sektorearentzako diru-laguntzen deia egiten du eta hori guztia EAeko aurrekontu orokorretatik (9.598.037 euro) eta Arrantzarako Europako Funtsetik (6.679.963 euro) ordainduko da.

Diru-laguntza horiek ondoko ildo zehatzei daude zuzenduta: Arrantza-ontziak geldiaraztea; arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea; arrantza-ontzien inbertsioak eta hautaketa; Itsasbazterreko artisau-arrantza; konpentsazio sozio-ekonomikoak; akuikultura; talde-ekintzak; merkatu berrien garapena eta sustatzeko kanpainak; proiektu piloitoak; edota arrantza-ontziak birmoldatzeko egokitzapenak.

## Kultura Saila

### **KULTURA SAILAK 130.000 EURO BIDERATUKO DITU KALE-ANTZERKIRA**

Gobernu Kontseiluak 'Kale antzerkia bultzatuz' programari zuzendutako diru-laguntzen deialdia arautzen duen Kulturako sailburuaren agindua onartu du gaur. Programa berria da, eta 130.000 euroko aurrekontu-partida erabiliko du arte eszenikoen sektoreak, oro har, bizi duen egoera larriari irtenbidea emateko, zehazki aire zabalean ematekoak diren arte eszenikoen arloarena.

Oraingo krisi ekonomikoa gogor jotzen ari da arte eszenikoen alorreko kultur programazioa, eta horrek kalte egiten dio euskal antzerkigintzaren enpresa-egituraren jasangarritasunari. Alderdi horretatik arreta txikiena jasotzen duen sektorea da kale-antzerkiarena. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, egoera honen aurrean kezkatuta eta jakitun udalek ahalegin ekonomiko handia egiten dutela, uste du beharrezkoa dela aire zabaleko arte eszenikoen programazioak 'Kale antzerkia bultzatuz' programaren bitartez sustatzea.

Gaur onartu den aginduak helburua du 2010ean euskal antzerki-konpainiek aire zabaleko gune publikoetan ematen dituzten ikuskizunen urteko programen gastuak zati batean finantzatzea. Horretarako, programa berri honek 130.000 euroko aurrekontua izango du, lau modalitatetan banaturik, entitate eskatzaileek dituzten biztanle-kopuruaren arabera:

- a. 40.000 euro, kale-antzerkiko programazioak 20.000 biztanletik gorako herrietan antolatzeko.
- b. 35.000 euro, kale-antzerkiko programazioak 20.000tik 10.001era biztanleko herrietan antolatzeko.
- c. 30.000 euro, kale-antzerkiko programazioak 10.000tik 5.000ra biztanleko herrietan antolatzeko.
- d. 25.000 euro, kale-antzerkiko programazioak 5.000 biztanletik beherako herrietan antolatzeko.

Laguntza hauek eskatu ahal izateko, udalek, koadrillek eta mankomunitateek edo haien udal erakunde autonomoek antzezleku egokiak izan behar dituzte, bai eta programaren alderdi tekniko guztiak koordinatuko dituzten langile arduradunak ere eta konpainia edo artista parte hartzaileak kontratatzeko gastuak beren gain hartzeko adinako aurrkontua. Ez dira lagunduko beste bide batzuetatik diru-laguntzak jasotzen dituzten ziklo edo jaialdietako programazioak.

Jaurlaritzak kaleko antzerki-ikuskizunen katalogo bat landuko du, agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten konpainiek osatua, programaren garapena errazte aldera eta informazioa emateko eta sustapen lana egiteko helburu hutsarekin. Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein ikuskizun sar dezakete onuradunek beren programazioetan, katalogoan egon edo ez. Deialdi honen babesean ematen diren laguntzen eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.